




Bizkaitarrei  
Bizkaieraz



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

# IZADIA ZAINDU

## Euskal Toki-Izenak

Munduan eta Euskal Edestia IX.



Mendiaren erraietatik  
2012ko SARI LEIAKETA. irugarren saria



LANDAJUELA,  
Anton, X. atala

**EUSKAL ASTEA, Azillaren 25etik 29ra**

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2013-2014 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

### 46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
**2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.**

**Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**

**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa  
eta inprimaketa: Ibegrafik  
www.ibegrafik.com

# LANDAJUELA, Anton, X.

## Jan-tokia

Bakealdian leku andia izango zan, jantokia. Amaitu barri aurkitu genduan, lareundik gora sartzen gintzazan. Iraurri edo saltzarria bean, lau orma sendo ta ez urik eta ez besterik an ezer etzegoan.

Gaixoetan gaixoena, ezbearretan ezbeartsuna Zor-notza-ko Irakulis izan zan.

Jan-tokiko mustur batean, eta Irakulis-en ondo-ondoan bakoitxak berari egokion zereginetarako bidoi andi bi jartzen euskuezan, Irakulis-en mosuetan ain zuzen be.

Gau ta bigaramon goizean gosaldu arteko zeregin bearrezkoenak antxe, bidoi bietara ustu bear genduzan. Saldea parra goiko ertzetik jausten jakola, Irakulis-en lo-kabiraño sartzen jakon, Irakuli-en sudurra estalduz bestela usai txarrez ilgo zan da. Lastakia patsetan bustia, busti artan egon bear izaten eban da, "tatarit" jagiarazoteko joten uskun arteño.

Irripar eraginarazoten dauskuen arazoak gaur egun, irriparrerako baiño, negar-egiteko lenagoko egunetan askoz bere obeak ziran.

Eta gaua emon genduan tokitik ataraten ginduezanean zer gertatzen jakun?

Nik areri, arek niri, eta urrengo batean edonok edonori parre-algarada gengoan goizeko lenen orduentan. Lau-bost kaka-toki bai egozan, baña batek egiten eben artean, urrengoek estu ta larririk izaten ziran eperdiari eldurik, eutsi eziñik, prakak loitzeko bildurrez, dardarka, egon-eziñez.



## Gela bakoitzean zazpi lagun

Zazpi gengoan giltz-kirrizkida batez gelatan lotuak, gauean baña lotarako orduetan, barrien barrizko kirrizkadak lo obeto dagigun edo, izaten genduzan beti-ta-beti biotzondoa dardarka ipinten euskuenlarik.

Ertz batean asten ziralarik, bai-etozan poliki-poliki ateriz ate kirrizkada barri batez atek ondo itxitera. Eta ondoan samar ziranean, alkarrri aulan itaundu.

- Gaur, ez; ezdot gaur ikararik egingo.

Baña giltza zulatoratzen ebanerako, andia edo txikia, biotz ikaraka izaten genduan.

## Oraingo ontan, Matias barriro bere.

Mundu gitxi ikusirikoa, ezjakiña, goldaren atzetik ibilteko gizon aukerakoena, ezan garratza, egin bear genduana ondo eginezkero.

Gure bizi-tokiaren goian bizi ziranak bein, gure gelaraño MATEMATICAS-en eske bialdu eben. Iriki atea, eskatu euskuna emon geuntzan eta atee-

tan bere, txistu-mistuka, gu barriz, barrenean tinko ta geldirik.

Zer eta zan, ba nai ebana? Eta alako batean, itxaroten nekatu edo, diñosku; "Matemáticas" esan dauzket eta bat besteari eztaustezue emon. Eta besteak, besteak non dozuez bada?

Arazoa zelan zan argitu geuntzanean, bakez joan zan.

### Lokarrizka sakelak.

Kipula ta tomatea zeatzako laban da aiztorik, soñeko zarrak barriztatzeko joztorraztik eta gorostirik, ezer an etzegoan.

Etxetik saku-mantarrez loturik bialtzen euskuezan janariak, txiki ta piti ziran sorrotxoak altzitu, aria ta goroiki biurtzeko txirikordatzen genduan, sarea, sarezo sakela egiteko.

Enparantza nagusia giñanetan, sarean izaten genduzan zalia eta azpilla, kinkilin-kankalanka emoten genduan eguna. Beroak irudigun.

Zenbait garrazkeri emen ere esateko dotazan arren, bertanbera Burgos ori itxirik, noian barrien barriz Bilbo-ra, Larrinaga-ra, niretzat daukan, zeregin geiegiko edezti biurri au bein betirako amaitzera.

### Barriz bere Larrinaga-n.

Illuntze batean, ondo illunduz geroz, On Jaime Zarandona eskuan orri batzuekaz etorri jatan ba-

rrenera, erriko endore jaunak emon eutsazala ta, nire onerako zirala esatera.

Franco-ren kapellau eta... arrera onik egin neuntzan, papelak baña ez nebazan eskuratu, Igorre-ko Jauregi-k egiñak etziralako, eta orri areik, edozelako orri zatarretan egiñak ziralako.

Eskuarte bear ez nebazanlarik, beraren eukan itxitea erabagi neban, nora eran ekialako. Jaunak daki nondik eta noraño joan ziran orri areik, areiri buruz ez neban beste deirik izan ta.

### Kotxor, Txutxurrio.

Gaitzizen bi oneikaz Txutxurrio Kozkor ezagutzen genduan, Euskadiko Gobiernoak preso eukia eta, karlista amorratua, fazistakaz arremon andiduna.

Bein baten bere barruraño etorri jakun, Larrinagan. Ni nintzakion begikoa, aurkitu nindun da, bion artean joan giñan geure erritarrak billatzerara, billatu eta aurkitu, iñon izan zan itzaldirik, bein gozoki ta bein garrazki, aitatu euskun, Txutxurrio gure errikideak. Azken batean bigundurik, Gabon gaberako paitarra igorriko euskula esanik aldendu zan, oraindik paitar aren begira gagoan arren.

### Teruel-dik.

Ogei, berrogei, irurogei bat (?) gizonezko, danak gudari atxilotuak, Teruel aldean.





Odolez etziran beroak, itxuraz tristeak, goibelduak, lenengoz izan eben eran Errepublikatik Francoren alderdira igez egindakoak.

Ezeben berbarik inogaz egiten, eta Burgos-era eroan ginduezanean, Larrinaga-n gelditu ziran egunetik egunera fazistago agertzen ziralarik.

### **Villariño abadea.**

Zerutarra, kristoren ordezkoa, inoiz be obenik egin bakoa santu utsa, ezan gure gogokoa.

### **Calasanz apaiza.**

Berba on eta itxaronpetsuz asi dau, esateko dakarskun mintzaldia ara baño non aldatu dauskun aria, beraren era berezira.

Gonatzar andidun abadea gizonezkoa zan, apaiz añaiko militarra.

“Oraintsu arte danok, gorririk gorrienak izan zarie, eta orain emen nor da izeko lekaime, osaba lekaiderik eztaukana, eta nor dogu daren artean apaiz lengusuen bateri argitasun-agiriak eskazeko idatzi gabea? Ez, jaunok,

berandu da orain inoz izan etzariena eskatzea. Danok dozue orain Elizarakoen bat, ari laguntza eskatzeko”.

Leenen izan genduan poza izoztu egin jakun, gizon aren agokadakaz, biotzak dardar, kikildu, egunaren argia illundu.

Larrinaga artan eundaka illak izanik, bakoitzak beraren egiteetan bearko eban iriki zerurako, edo-ta inpernurako atea. Gure alde egin ebazan otoietatik aske gengoan da.

Gezurra ba dirudi be, Calasanz-en lakoxeak ziran aldi artako Franco-ren elizgizonak; madarrikatuak.

Eta il zan Franco bera be, gixajoetan gixajoena, gaixoari aurrera ezin arturik, azur uts gelditu zan. Arotz, jostun da idaltzeruak naikoa eben zereginik azur ildakoen ganean lasta, galtzu ta zapi zarrek Franquito barria egiterakoan, arri anditzar baten azpian estaltzeko.

Utsik askoren artean amaitutzat itxiten dot, Iratxe ta Iker illobatxoak euskal-zaletasunik inoiz izango balebe, umarotik zartzarorarteño zelan izan gintzazan jakin dagien.



## Españarren erpetan

### 1938gko urtean

1938gn. Urtea zan eta dagonillaren 28an. Egun batzuk lenagotik Cicero izeneko errixka baten gengoan, eleizan, gudari gaxo ta gudan zaurituko gaztedi mordoxka. Arerio ankerrari paparra jartzeko ezgintzazan gauza, bai osterarenrenka, erdi errenka edo bakoitzak al eban eran erri inguruan ibiltzeko.

Gorago aitatu dodan egunean, urrin be ez egoan ta, Laredotik Santander-untz joian bitxabaleraño eldu gintzazan adiskide taldetxo bat bide bateko eguzki artzea egiñaz, eta emen, arriturik, non ikusten doguna bideak betean gudariak, gudari etziran gizon urtetsuak, andrazkoak eta umeak, batzuek izerdiz, beste batzuek arpegi larriakaz, negarrez zetozanak ez ziran gitxi. Itaundu genduan, larritasunak eraginda, ia zer zan zana, gertatzen zana, eta, erantzun au izan genduan: Italiatarrak, Doiztar edo Alemanitarrak Aprikako narruilunak eta azurbaltz guztiak bat eginik, or jatorkuz jarraika ta orpoak jaten. Izkillu indartsuz orniturik datoz, Laredora urreratu dira, ezin dautsoegu eutsin eta emen gatoz nora jo ezta kigula alperreko eriotzari igezka.

Erantzun ezin baltzago oneik azelako dardara biztu jakun oñetatik barrura. Alkarren arpegietara begiratuten genduan. Gure espanetan ezegoan itzik, eragabien bat artu bear zan. Aldean genduzan zauri

ta makaltasunez nora jua eta zer egin? Atzen baten sartu giñan notintzazko uriola artara, eta burua ondatuta dauan zoroaren gisan, titirri-tatarra, nora giñoiazan ezkenkiela Santoñara eldu gintzazan.

Erri onetan etzegoan txoko eskuturik nasai egoteko. Adin guztietako notiñez samaraño bete zan. Danak zirudien urduri, iñon ezegoan leku onik. Padura izeneko ta lañoatara nasaitasuna ta eroapenagaz jabetuteko eskatuten dauskuela. Arrantzalien ontziak kaiolak balira lez, kaia bete dabe ta gertu dagoz igeserako, kea darioe. Onein artean arrantzarakoa eztirudi anditxoago bat agiri da, eta gizonetzkoak, bata bestearen ganetik alkar zapalduz onen zabel eta gane legor gabea, aguro beteko dabe. Zauri andirik eneukan, Bilbo-ko Artxanda-n zauritu ninduben, edozerlako ikutuak min emoten eustan. Baña alan ta guzti be, bildurraren bultzadakaz eragin da, barruratuteko egarri bizi-biziari erantzunik, ukondoko ta indar niretzako beste leku aurkitu neban ontziaren sabel sakonean. Inguruan ziran ontzitzuak be betetan joiazan, zama geiegiagaz goiko ertzak ia urperatuta ekiezan, itotzeko arrizku gordiña idierazten eben, iñor etzan legorrean gelditu gura ebanik, gaba gero ta zarrago egiten zan, eta arerieren erpeak geroago ta urrererago.

Gabaren erdia joan zan. Ontziak uraren azaleko armin ta kezkatu, batera bira, aur-eginik bestera, ezta be urrinduteko biderik artzen. Guztiok gagoz alkaritaunka iñork ete-ekian itxasoratuko giñan ordua. Erantzunak: «Goizaldera, eguna itxartu baño len

itxasoa zearkatuten izango gara atzerri ezezeunera-ko bidean noiz biurtuko garen eztakigula». Zerbait ekianen batetik etorritako berba izango zalakoan baretu giñan, ez luzerorako baña. Laredo-rantz urten zan topintxo zerbait gertatzen zan jakin eta ikusterera beingoan biurtu zan izparbaltz itxaropen-ondatzalle onegaz: «Itxasoko ago-agoan sei urpeontzi doguz urten-bidea galerazoten dauskuela».

Larrirasuna lodiagotuten asi jakun, guztiok asarre, iñon ez toki onik, estutasunak jan bear ginduzan, eguna begiak zabalatzen, eta ontziak kaian tokirik aldatu barik dantzari. Igasi zan gaba, etorri zan goizeko zazpigarren ordua, eta bata-bestioen atzean legorrera, lurrera.

Itaundu dogu baten, geiago zer zan jazoten zana, eta erantzun pozgarriak belarrizuloan kilikili dargosku «Frantzitar eta Ingaladar ontzi andiak jatorkuz une batetik bestera gura dogun guztiok anka egiteko».

Batera ta bestera, ara ta ona, zelan edo alan emon gendun eguna barri billa, bai-ta alaigarriak batu genduzan: Italiarrak zirala gure jaun-jabeak, oneikaz egin bearreko artu-emonak aurrera joiazala bide zabaletik eta bildurrik pitienaren bildur ez izateko.

Arraltsaldeko seirak aldera entzun genduan txirrinka biko tatarraren otsari ezgeuntsan buru-belarririk egin eta ezgenkian nor izan eteikean; albistea, baña, laster zabaldu zan agoz-belarri Italiar gudal-burua zala etorbarria, bai-ta egia zan be.

Bai nik, eta bai nire inguruan ziranak, mozollo

itxurako arpegiak agertzen genduzan, Mussolini-ren gudaria gure aldametik igaro ta aldendu zanean. Berau ondoatu zanean zutitu gintzazan, begirapenez, eta etorribarriak be arpegiargi, eskua zabaldurik eta atzak lokiraturik agurtu ginduzan.

Gure nagusiakaz legezko arauak zuzentzera etorria zan, joko garbia zala be entzun gendun, kezkaeren edian arnasa sakontzen gendun, eta alako baten, arratsalde on esanda etorri zan bidetik urrutiratu zan. Batera jua naiz bestera jo, txuku-mutxua, besterik ezan gure artean; txakur-ametsak bere etziran gitxi.

Lenago izan genduzan ametsak, itxasoa zearkatuteatzaz, iruntsiten asi gara barrien-barri. Gogor igurtzen doguz eskuak batagaz bestea lastandurik, pozbako morroi eginik. Lurraren ganean gagoz ezarririk gizonezko uztaia eginik. Atzerri urrutiko bizitza eratu gurarik, an doguz gogoak sustraiturik, eta ametsezko txondortzak jasorik, eztogu nabaitzen jan ezaren nekerik.

Italiar nagusia Santoñaratu zanean, leiorik geienak apaindu ziran une batetik bestera españar ikurriñak dindiliz zirala, baña Mussoliniren gudariak aldegin bazen azkar eskutautu ebezan oiua ta agozabalko estegitako zapi iguingarriak Eusko gudarien ardurapean zan erria oraindiño, oar egin eben gorri-bellegi ziran zapiak kentzeko, eta agindua zeatz bete zan.

Arraltsaldeko aldera barriro datorkigu Mussolini txikerra 6-8 bere antzekogaz inguraturik, ikurriñak gora jasorik. Iru-lau gudari korta bardiñean ezita-



koak dakarrez atzetik eta ondoan. Atzeratxoagotik baña ur samar, moskor itxurazko andra moltzoa edan-beroan goraka ta txaloka Españari, Fazismoari, Kristo Erregeri. Arreta oso otza egin geuntsoen.

Berrogeien bat urtedun zan gizonezkoa (gudari euskalduna), Gora Euskadika ezin zan asetu ormatxo baten ganetik. Españarrak izan balira menperatu ginduezanok, an itxi bearko zituan azurrak Euskadiri goraka eragoion gudari bulartsuak. Italiarren belarriak, ostera, etziran izan irainduak eta minduak. Beste mutil eder bat, Ertzaña, Eusko Ikurriña bizkarrean, negarra begietan eta gudari mordoagaz inguraturik, ezaban gura artu aintzakotzat menperatzallien nagusitasuna ta indarra, eta sua ta txatarrak begietan bizturik burruka barriaren egarri gorria erakusten euskun. Beste ainbat ziran edo... gintzazan (eztakit neure burua zein arlotan jarri), begiak malkoz eta biotzak urratuta izanagaitik burua galdu ezgindunak. Era guztietakoak; odol bero ta otzekoak bear ginduzan tarteko egun aretan; epelegiak indarbarritu, odol-kirio beroegiak baretua eta negarrez ziranai poza emoteko.

Bai eguna ta bai gaba, baltza izan arren, askatasunik zabalenean emon genduzan. Aprikatar nau-ruilunak ikusi bagea nintzan orain arte, ta emen, Santoñako itxasertzean ikusi nebazan lenengo aldiz praka-nasai, mustur-zikin, ibilkera zirirri-zakardun alper itxurako Frankoren gaizkatzalle, ta andra izortzalle lapur oneik.

Auxe zan Santoña: azkatasunaren billa millaka ama euskaldunen millaka semeren azken-muga. Emen ikusi genduzan azkenengo aldiz -luzarorako- eguzkiaren argia, idetargiaren arpegia ta izartegia. Emen zan ilgo euskuezan lagun askoren lur aukeratua eta ezkutatuta eukiko ginduzan giltz madarikatua. Emen zan, bai-ta, bigarren nekaldiari asiera emongo geuntsan tokia.

Agorrilla-ren 27go goizeko egun argitzeagaz eze-reztu zan gabaren sabela. Kaian, itxasbera zalako edo... ontzi aundi bi egozan, asao; bata prantzitarra zan, ingalandarra bestea; beintzat olan entzuten zan. Eta egiztatu ezin ba-dot be, iñoiz aztuko ez jatazan bakoitzaren izenak onexek ziran: "Bobie" eta "Seven Seas Spray".

Zurikeria zan edo ezbazan, oraindik eztaikit, Italiarrak, baña, geu Prantziaratuteko zirala esaten etziran nekatuten.

Benitoren gudariak arpegiz argi ta maiteki azaltzen ziran, eta onein aginduz ontzietarako bidea artu gendun goizeko zortzirak aldera. Ni, bigarren izentatutakora sartu nintzan, eta au bete zanean bestea bere aguro bete zan.

Españarren edetan geure buruak lotuak izango ete ziran gogoratzeak, ikaratzeko buru-austeak sortu-arazoten euskuzan, eta noiz izango zan ezgenkian urtetako orduagaz gogoratu ezker, ostera, lilluratu egiten gintzazan. Gure itxaropena, itxasoaren arautan makurtu zan eta joka-bide bardiñeko egin ziran; bein gora, bein bera; bein gazi, bein gaza. Geuk esan





eta geuk entzuten genduanari jaramon eginik, uraren arroaldiaren zai gengoan; aingurak goratu, lokarriak azkatu eta itxasoaren narruari azurrak urraturik eta Euskalerrira begiratzuz mendi erpiñai agur egiñaz, zerura naiz inpernura egiteko gertu.

Poza ta negarra burruko barruan geunkazala, urak bere gorakada egin eban, bai-ta, berakada be. Bigarren aldiz, astitsu, alper eta neketsu gorako bidea artu eben ur garden geldieziñak, gorago egiteko kemen eta indarra galduta ikusteagaz eta lotsatu izan balira lez ixil-ixilka ta geldi-geldika lengo zulora jatsi zan gure itxaropenak beraren kolkotan ito ta gorderik.

Orduak luzeago egiten asi ziran, arterik eza indartu, larritasuna estuagotu, igez-naia armindu.

Alako baten, zeñek ke baltzagoa zerurantz jaurtitzen asi ziran askoren amez-ontziok gure biotz kupiragarrien osasunerako. Itxaropenaren bizialdi barria izan gendun, arnasa artze zabalagaz jabetu, ames lillurakorrak sakondu; odola gaztetu.

Aizearen bizkar ikusieziñerako bidean doiaz ke baltz zikiñak. Zulotik igeska asi ziranean moltsoka ta jostalari, orain medar ta neketi eta gure buruak paparrera eskegita.

Suaren ezaugarria goiko odai-tokian ezereztu zan lorratzik itxi barik. Eguzki bere amari mosu emotera joan zan. Illargi gau zalea erdi-keñuka laño zurizka tartetik keriza egiteko almenik ezeukala, eta gu, loari tokia ukatzen, begiakaz iluna zulatzen.

Gaba aurreraka aize ozkirriak bultz eraginda, eta gabari orpoak miatzkatuz etorran egunsentia. Eguzkia be itxartu da geberoko loalditik, eta sanak indartu loditurik, osin sakon kresaltsua legortuguran jagi dala dirudi.

### **Agorrilla-ren 28gna.**

Goizeko itxas-aixe garbiak puzka daragio samurki, baña gure surtzuloentzat eztau gozotasunik. Aurreko egunean, goitik bera, ametsez beteta laga genduan lurra, ez genduan galtzen begien aurretik, geldirik jarraitzen genduan ur gaziaren azalean. Gudari garaillezko txinurritegia ikusten genduan errian; eta gu, praka zarretan geroago ta estuago.

Aurrerago aitatu dodan, gozotasunik bageko goiz-aizea, usai txarreko eginda. Agindu garratzak ingurutu gaitu, eta buruak makurturik eta amets guztiak ondaturik, lurrerako bidean jartzen gaitue. Bai jarri ta bai sakoneratu Duesoko espetxe bildurgarrira.

Itxasontziak ur barearen azalean laga, ta oñak lurrera jarri genduzanerako, gizon-areriozko uztaiak inguratu ginduzan, eskuetan izkillu bana ta garrian dindiliz beste banagoaz orniturik egozan.

Aurrera goaz espetxerako bidean. Buztarripeko abere nekatuaren zankada astuna ta baldarra ikusten dot ingurukoetan. Soñak zuzen, bekokiak goian ibilkera txairo ta begitarte irriparretsuak be gitxi ez-tira.

Bagoiaz ba, aurrera espetxerantz, eta onetan, andrazko batek, urreraturik, euskotarrak garen itaunduten dausku. Baiezkoa entzun dau, eta arpegi maskalduan gozez ta atsekabez sakoneratuta dauzan begiak iturburu biurturik bidebastertu zan. Ez-taki norantz egin, ezta zein bideri ekin, eta an gelditu da bakar ta negarti lurra etzantzeko deitzen eutsan gorputzari eutsi eziñik.

### **Dueso-ko ormartea**

Etxe onen orma sendo, burdin-esizko leio ta ate indartsuak eztira gizonaren biotz-nasaigarriztat egiñak. Lagun bakarrarentzat antolatutako gela bakoitzean zazpi gizonezko. Burdiñezko ogea azur uts, gai bardiñeko araza txikia orman josita, ipurdi beteko maia lurrari tinkatuta; oneik ziran illa bartzuetan begien aurrean izango genduzan erredixak.

Gizonaren zeregin bearrezkoak egiteko ez genduan irolarik gelatan, eta zio onegaitik goizero idigiten euskuezan atek, zeregiñak egin eta albait azkarren tokira barrero.

Janaria oso zan urria, zazpik jaten genduanagaz... poliki asetuko gintzazan iru. Gosaritzat txokolate murturtxo bana edo akeit itxurako burruntzalikada bana salda gorri-baltzizka. Bazkal-aparirako txoleteko indaba umatua ta ogia neurri urrian.

Jateko ugaritu bear genduan zelan edo alan, gosea il bear zan bizi gura bagenduan, eta goizean atek idigiten euskuezanean ura eroaten genduan gelara indaba-txolet utsituetan. Gure aurretik emen izan ziran giltzaperatuak laga eben txiz-ontzian, papel-muturrakaz sua eginda, bero-epelduten genduzan, urtsu-urtsu, indabak, bai-ta txokolate saldatsua egin be. Era onetan epeldu ta laztantzen genduzan eztarri urdail, sabelak, 10gn. gelako zazpi gudari doakabeak.

(Jarraituko da)

# Mendiaren erraietatik

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2012ko SARI LEIAKETA. Irugarren saria

**A**mabi urte bete barri ditut, eta oso pozik nago. Kivu errialdean bizi naiz. Etxean asko gara: ama, aita, sei neba-arrebak eta amona. Asko maite dot amona. Aita mendira joaten danean lanera eta amak janaria egiten dauen bitartean amonarekin egotea dot gustukuen. Asko ikasi dot berarekin, naiz eta eskolara inoiz ez dan joan. Amonak babestua bizi izan naz. Lagunek eta familiak babes-ten naute. Euria egiten dauenean ipuinak kontatuten deustaz. Amonak esaten dau, mendien beste aldean, iru egunetara edo, laku eder bat dagoela, eta bertako ura edan ezkerro betiko zoriontsu izango garela. Ez dot ezagutzen laku ori, baina andia egiten naizenean, nire leenengo bidaiaren elmuga izango da. Amona ere nirekin eroango dot.

Iragan dira bi ikasturte nire leenengo eskola egunetik, eta bitartean asko ikasi dot. Idazten eta irakurtzen mot-datzen naz, eta matematiketan ere abileziaz aritzeko trebetasuna artu dot. Andereñoak esaten dau asko aurreratzen ari nazela, eta etorkizun oparoa dodala zain. Uda onetan ordea, lan egin bear dot. Aitari amaitu jako berak eukon diru apurra, eta datorren ikasturtean barriz be eskolara joan gura baldin badot, udan lan egin bear ko dodala esan deust. Nik arro-arro lagunduko deustat, gizonek egiten daben lez.

Urrengo ilabeteak gogorrak izan ziran. Gu menditik lurra ataritzen ibiltzen ginan, eta ostean gizonek bertatik ataritzen eben. Ez dakit zer zan, baina badakit oso preziatua zala. Olivierrek eta nik ez genduan itz egiteko aukera andirik izaten, baina aukera txikerrenak be ondo aprobetxatzen genduzan. Gure ametsez itz egiten genduan. Nik esan neutson urrengo ikasturtean barriz be eskolara joan gura navela, eta anditan mendiez beste aldeko lakura joango nintzela. Arek ez eustan gauza andirik esaten. Urte asko eroiazala lanean bertan eta- Bildur zan nire bizitza bertan igaroko ote neban. Eskolara joan gabekoa zan, eta ekien gauza bakarrenetarikoa menditik lurra ateratzea zala esaten eban. Nik ez neban ala uste. Olivier mutil jakintsua zan. Berak baekien noz egingo eban euria, txoriek inoiz arte lo egiten eben, nortaz fidatu eta nortaz ez. Berak asko ekien.

Gogoan dot Olivier negarrez ikusi neban eguna. Lanean nenbilan, nire pentsamenduetan murgilduta, mendi barrenetik lurra ataratzen, burua altxatu eta Olivierren begi distiratsuak ikusi nebazanean. Gava etxean pasatu eban. Aurpegia zuri-zuri eukan. Ukabila amorruz estutzen eban eta begietatik malako zaparrada ez irteteko alferrrikako aaleginak egi ten ebilen. Ustekabean arrapatu ninduen egoera ark. Asieran ez neutson ezer itaundu ba entzutera nindoana benetan latza zan.

“Anaiari bisita egitera noian, bidean mutil gazte bat aurkitu dodanean. Berbetan asi jat. Nik asikeran ez deusat kasurik egin. Berak berbetan jarraitu dau, eta niri segika asi da. Gelditu egin naz. Agian galduta egongo zan, baina bertakoa irudien. Eta laguntzeko prest nengoan. Nor naizen galdetu deust, nongoa naizen, zenbat urte neukozan, non bizi naizen, nora noian-Tipi-tapa, korrikan bukatu dodan arte. Mutila nire atzetik etorren, basoan sartu naz, eta bat-batean esku batek besotik eldu nau. Indar andiaz eldu nau eta ezin izan dot ies egin. Lurrera bota nau, eta nire ganean jarri da. Garrasika asi naz, eskuarekin aoa estaliz isildu egin nau. Ortik aurrerakoa-Ez dot ondo gogoratzen. Amaitu danean mutilak inori ezer ez esateko esan deust, bestela nireak egingo ebala. Zartako batez lurrean utzi nau barriro.”

Olivierren arreba barriz etxean egoan. Gertatutakoaren barri soilik bere nebak izan eban, eta ez bata ez bestea ez ziran ausartu etxekoei ezer kontatzen. Baina Olivierrek argi utzi eutson arrebeari, egunen baten tipo ori aurkitzen baeban aka-

batu egingo ebala. Bitartean bisitak debekatu eutsozan. Ez eutson mendira bakarrik joaten utziko, ezta pentsatu be!

Ikasturte barria asita egoan, baina nik mendian jarraitzen neban. Aitari galdetu eskolara barriz noz bueltatuko naizen, eta berak beti laster erantzuten eustan. Ez eban beste erantzunik. Dirua aurrezten ebanean, urrengo ilabetean edo biar bertan izan zeitekeala ziran erantzun posibleak baina, berak laster esaten eustan. Egunak ordea aurrera joiazan, eta laster ori inoz ez zala iritsiko pentsatzen asia nintzan.


Asteak igaro ziran. Olivierrekin gero eta konfidantza geiago artuz noian eta azkenean lagun andiak biurtu ginan. Askotan berak laguntzen eustan zuloa egiten, eta beste batzuetan neuk laguntzen neutson- Eta atsedenaldiak berbetan ematen genduzan. Nire leengusua balitza moduan ibiltzen nintzen berarekin. Bere arrebea jada ez zan bisitan etortzen, eta eskerrak, bestela oso urduri jarriko nintzan. Egia da bere bisitak barealdia bezalakoak ziralda ekaitzaren erdian, baina gertatu jakona barriz gerta ez dakion gura neban, eta orregatik lasaigo sentitzen nintzan errian geratzen zala ikusita. Gertakizun latz aretaz geroztik ez neban barriz ikusi, baina noizean bein gutun bat bialtzen eustan, erriko kontuez berbetan, bere neba zaintzeko eskatzen-lurrotatik gazteena zan arren, guztion artean arduratsuen eta argiena bera zan, eta nik asko estimatzen neban.



Laugarren ilabetea mendi onetan. Egun euritsua bezain gogorra izan da gaurkoa. Ez dot indarrik, ankak dardaraka deukodaz, eta ezin dot nire begietatik malkoak isurtzea ekidin. Lanean aritu gara goiz osoan zear jo eta ke. Tunel estu-estu bat egin dogu mendian barna, barru-barruko lurra atara aal izateko. Ni sartu naz leenengo, ostean Olivier, gero ni ostera be, eta jarraian bera. Txandaka ibili gara, nagusiak arin ibiltzeko esan deusku eta, eta azkarren ibiltzeko modurik onena txandakatzea zala-koan, ala ibili gara. Bera, ni, ostera ni, gero bera, ni eta bera. Ez da geiagorik izan. Tximista batek zuaitz bat zatitzen dauen moduan zauritu da nire biotza. Bularrean ikaragarritzko presioa sentidu dot. Ezin neban ulertu. Nik ataratako lurra gizonei ematetik bueltan, mendiak Olivier nola irentsi dauen ikusi dot. Sentitu egin dot. Segundo pare bateko kontua izango zan, baina amaitu ezina begitandu jat niri. Mendiaren egal bat maldan beera abiatu da, buztinezko erreka bat osatuz, eta bertan joan da Olivier be, igerian ez ekien arrainaren antzera. Debekatu egin deustie bere atzetik joaten, eta esku batzuek estu eldu naute, ies egin ez dagidan.

Bakarrik nago. Aita agian egunean bein edo birritan ikusten dot. Lanean bakarrik aritzen naz, eta bildur naz. Olivier mendiak irentsi eban. Inoz ezagutu dodan bere adineko mutilik azkarrena zan, eta mendi batek irentsi dau. Bitartean guk lanean segitzen dogu, erritik urrun, eta okerreña da ez daki-dala zertarako!


Gaur atsedenaldira aitak papera eta boligrafoa lortu deustaz, eta gutuna idazten asi naz. Ez nekian zelan asi. Ez nekian ondo idatziko neban ala ez, baina gertatutakoa Cecileri kontatu bearra nekon, ala sentitzen neban. Inor ez zan errira jaitsi, eta Olivieren familiak ez eban gertatutakoaren barririk. Ez dot gaur amaitu, ez dot asti naikorik izan, baina biar derrigor amaitu bear dot. Olivieren familiak gertatutakoaren barri izan bear dau, eta inork ez dauenez orretarako asmorik, neuk idatzi bear ko dot gutuna. Ez dakit errira nork eroan aal izango dauen, baina lortuko dot ala edo ala gutuna Cecilerin eskue-tara eldu daiten. Negar egin dot. Aitak ikusi egin nau, baina ez deust ezer esan. Ez da ausartzen erantzunaren bildur dalako, edo agian ez deutso garrantzirik emoten. Bakarrik sentitzen naz.



Gutunak au diño: " Chris naz eta amabost urte daukodaz. Kivu errialdekoa naz. Bi urtez joan naz eskolara, bertan idazten eta irakurtzen ikasi dot. Nire ametsa mendiez beste aldeko lakura joatea da. Nire amona ere eroango dot, nirekin dago-eta! Atzo il nintzan leenengo bider. Ez dot gura bigarrenez il. Mendian ari nintzan, beraren erraietatik lurra ateratzen. Asierako ilabeteetan ez bezala, banekian zer balio eban ateratzen ari nintzanak, eta zer balio neban nik. Goizean, lanean nenbiela, eguzkia ezkutatu, lainotu eta euria asi zan. Bat-batean ikaragarritzko zaparrada asi zan. Mendi barrenetik leenbaileen urten bear izan neban badaezpada, eta argitasunaren atzetik noiala, bularrean ikaragarritzko presioa sentidu dot. Dana ilundu da. Besoak alde batera eta bestera egiten eban. Arri baten kolpea nabaritu dot belauanean leenengo, eta ortik aurrera ezer gitxi. Lurra, lurra besterik ez.

Koltana ateratzen aritu izan naz iru urte luzez. Lagunaren eriotza ezagutu dot, mendeku gosea eta eskolarik gabeko mundu ustela. Olivier eta nik ataratako lurretik koltana ateratzen eben gizonak, eta gero bertatik tantalioa bereizten zan. Telefono mugikorretako bateriak, kotxeko piezak, etab-egiteko. Oso ona omen zan jendearen bizi kalitatea obetzen eben tresna orrek egiteko, eta tira, inor ez zan gutaz arduratzen. Isilpean gordetzen ginuezan. Isilpean sufritzen jarraitzen dogu, eta estatu aberatsek, eurek demokrata izenaz definitzen direnak, ezkutatu egiten gaitue. Obe dalako amar urteko ume bateri ikaragarritzko saketakoa erostea, amar urteko gurelako ume bateri ezkuntza eskaintzea baino. Zer da, ba, ezkuntza txabola batean bizi dan ume batentzat. Etorkizuna bearbada?

Olivier  
Asier Legarreta



# IZADIA ZAINDU

## EUSKAL TOKI~IZENAK

## MUNDUAN ETA

## EUSKAL EDESTIA IX.



1031n kalif erria ezereztu zan eta 1086an Almorabi-deak menperatuta geratu ziranean, moru onein denboran, Sebilla, Toledo, Kordoba ta Granada, jakintzazko erdigune garrantzizkoak izatera aldatu ebazan.

Moruen jendekuntza, Grezia, Asia Txikerratik eta Ejiptoko jendekuntzaren jakintza batuta edertu ondoren, Munduko jakintzaren ardatz nagusia izatera lortuaz, ordezko biurtuta geratu zan.

Eta ez eben txarto egin: Ele eder<sup>(1)</sup>, filosofia, medikutza, eder lanaren jakintzak ondo landu ta Erdi Aroan, ibili ziran errietatik zabalkuntza aundia emon ebelako.

Etxegintzan<sup>(2)</sup> bereizitasun ederra artu eben: Kordobako eleiza<sup>(3)</sup> ta gazteluagaz<sup>(4)</sup>, Sebillako do-

rean<sup>(5)</sup>, Zaldubako<sup>(6)</sup> jauretxean<sup>(7)</sup>, Granadako jauretxean<sup>(8)</sup> eta abar.

Edertasunezko mailla aundira be eldu ziran: Metal edo txilinkiko sar lanen<sup>(9)</sup> eradonkian<sup>(10)</sup> edo ta metalak pikailatzen edo esmailatzen<sup>(11)</sup>, zizel iruditan<sup>(12)</sup>, luma ederrako idazkeran<sup>(13)</sup> ta abar, ta oso korapillotasunezko loraren marrazkietan<sup>(14)</sup> apaindura eder edo ta jeometrikoak.

Baiña, gauza bizien irudi barik, euren erlijioak debekatuta eukielako.

Soiñu, eresi edo musikaren arlorako be, gaillu askoren sortzailleak izan ziran, adibidez: Arrabit<sup>(15)</sup>, Rebab edo Rebik, gaurko biboliñaren bideak za-

(1)Ele-eder=letras.(2)Etxegintzan=arquitectura.(3)Kordoban mezquita.(4)Gaztelua=alkazar.(5)Dorrea=Jiralda.(6)Zalduba=Zaragoza.(7)Alja-feria=palacio arabe.(8)Albambra=palacio arabe.(9)Sar-lanean=taracea, trabajos de incrustación.(10)Eradonkia=cosa incrustada.(11)Esmailatzen=ataujia, obra de taracea en metales y esmaltes.(12)Zizel-iruditan=talla.(13)Luma ederrean=caligrafia.(14)Marrazki=diseño.(15)Arrabit=laud.



baldu ebanak, Zurna Zaramiola edo oboeren antzekoa dana eta abar.

Izar jakintzan eta matematiketan aurrerakuntza aundiak egin ebezan eta Hinduari artuta, Europara ekarri eben amarkako zenbakintza (numeración decimal).

Sendakintza eta kimikaren sortzailleak izan ziran.

Garrantzi aundiko ikastetxeak sortu ebezan Bagdad: Kordoba, Basora, Bokara ta Kufan. Eta liburutegi aundiak: Alejandria, Bagdad eta El Kairon.

Jakin zale aundiak euki ebazan Abizena ta Aberroes lakoak, eta ainbeste olerkari ta itzlaugille<sup>(16)</sup> bikain.

Mauritarren kaisal erria, erromatarrena baiño askoz zabalagoa izan zan, eta gaiendu, Mahoma 632an il zanetik 660ra aukerazko kalifak euki ebazanean.

Gero 661-750 urte bitartean Omeiyatar ondorengo leiñuak, Uri nagusia Damaskora eroanda,

(16) Itzlaugille = prosista.

750-1.055 urte bitartean Abasidasen ondorengo leiñuak Bagdadetik jaurkitzen eben euren kalifatoa.

XIIn gizaldian asi zan euren berakada. Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

## 5. Leenengo ta Bigarren zati onein ondorioa.

Bigarren zati onetan ikusi dogu, zelan Neolitiko eta tupiki edo brontzezko aldi bitartean, giza leiñuak gai oneitan zentzuz egokituarte, ikasbide luzeak euki ebezala, eta milla urteko ikaskuntzaren ekiñaldian ikasi gendula, gauza txarrak eta onak egiteko zeintzuk izan bear diran ekiñaldiko gogoe-tak, ibili bear doguzan erazko eritziak, alde batera edo bestera urten daitezen.

Mundu onetako ekiñaldietan nabaritasun guztia-gaz agertzen jaku: Ekanduzko gauzak egokirota-

sunean ezartzeko, gure borondatearen erabakiak bakarrik dirala gai.

Bereala jakiten dogulako, zeintzuk diran gauza on eta txarrak, Jaugoikoak gure Arimari emoneko arrazoitasunaren Baita<sup>(1)</sup> zain daukagulako, atseka-betuta edo pozkor agertu gaitezten.

Oiñarri oneik izan bear dira kontu aundian euki bear doguzenak, Mundu oneitan miraririk ez dagoelako, bizitzabera bakarrik izan ezik, konturatu-ten ba gara.

Alan dala, Beren Legeak bakarrik dira Ludi au bereztu edo izatasundu<sup>(2)</sup> egiten dabezenak, eta lege orreik dira bakarrik erabiliz gaiñ, danok egokitu bear gaituzenak.

Mundu oneitan orregaitik, ez dago gizatasunetik iñork eskubidetuta, berezko legetik kanpo<sup>(3)</sup>, asmakisunezko legerik atarateko. Gauza orreik egiten diranean, beti !, norkerien aldekoak izaten diralako<sup>(4)</sup>.

Fisika berak erakusten dausku, zentzuz edo edozein apeta edo nai kasketaldi bidez, leku batetik zeozer kendu edo aldatzen dogunean, leku ura gabetasunean edo gauzak aldatuta geratzen dirala.

Bereztutako gizarte arloetan bardin sortzen da: nortasuna edo errigizarte bateri euskerazko izkuntzak emoten dautson nortasuna, baten batek norkeriaren asmakuntzazko buru zalekerian ezereztu

nai badau, ez dago beste biderik: gizarte ori il edo, menperatzailetasunezko morroitasunean urte askotan eukinda, denboreagaz nortasunean aldatu edo ezereztuz, Jainkoaren zerbitsura bizi barik, sasi norkerizko asmakuntz orren serbitzuan ipini baiño besterik ez.

Ainbat erri alda, zigor, guda<sup>(5)</sup> eta eten bako espetxe erabili dira<sup>(6)</sup> edestian zear, errigizarteak morroitasunean eukinda nortasunean aldatzeko.

Mundu onetan Babiloniatik asita, edesti guztian argi ikusten doguna: Demokraziaren ateak zabal-tzen asten diranean, beti agertzen dala guda gogor bat, menperatzaileak, mundu onen ekanduzko bide ta mozkin guztiak euren kontrolpean gura dabelako, bizitz onetan sasi-agintaritzaz orreik iraun dagien.

Noiz arte ?.

Gure baitak ez ote dausku jazarraldirik<sup>(7)</sup> egiten ?.


Olan bada, Mundu onen giza, zuzen edo zentzunezko bide barik, ezin bestean galduta dago.

Gero ikusiko dogun lez, asmakuntz ori da gaur arte etorten dana, eta orregaitik gagoz gaurko XXI n gizaldi onetan burubelarri sartuta, nortasunezko gizartearen eskubideak berezko ekanduaren zentzuan egokitu dagiezen.



(1) Arrazoitasunaren Baita'k = ULERMENA. (2) Izatasundu = naturalizar. (3) Berezko legetik kanpo = porque lejos de las leyes naturales. (4) Norkerien aldekoak izaten diralata = entramos en el mundo de los egoísmos. (5) Guda = Erdi-ugarte oneitan askenekoa, Franko'rena. (6) Erabili dira = gaur-be erabilten diranak. (7) Jazarraldirik = protesta, oposición.





### 5.1. Giza leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki izenak.

Giza leiñuen azturazko bidean ikusi dogu, euren urrengo egunean bizitzeko, eizan eta zitu, bii, ale edo fruituaren arraparia bakarrik izatetik, izotzak urtzen asi ziranetik, ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zala, eta leen iri edo leiñuen leenengo orubeak<sup>(8)</sup> mugatzen asita, nekazaritza eta abel zaintzara bideratu egin ziranean, jakintzaren azturazko bide orreitatik euren etxegabetasuna edo alderraiezko bizitza gaindu egin ebala.

### 5.2. Izkuntza ta toki izenak.

Omo Sapiens edo Kromañoi Giza Afrikatik urten eta zabaldu zanean, bere ulermenerako leen izkuntza, adierazten eban abots edo leen itz ots bakarretik asi bear eben, eta azturazko jakin bidean berbeari gorputza emonagaz irudiz oituratzen, berbea ulermenaren ezagutzazko oroipenean, ederrenetarikoa gaillu bat biurtu zan.

Ez zan egon nastetasunik gauza orreitan, milla urte askoren jakintzazko azturaren, Europa, Afrika ta Asiako lurraldeak, izkuntz edo oiñarri bateko esabideakaz mugatuta izendatu ebelako.

Milla urte asko leiñuen auzotasunean egonda, antzeko izkuntz bakar baten ulermenpean, goian esan dodan lez, toki izen orreik lurraren jabetasuna artu eben, eta nai ta gero Asiaren ondorioan agertu ziran maltzurtasunezko menperatzaille bideak gaur arte, Munduko lurralde guzti orreitan ez dira izan gai, lenengo Euskal toki izenak aldatu edo ezereztuteko.

Gaur, geure izkuntz-edestilari ta ele-jakitunentzak toki izen orreik, urrezkoak diranak, Mundu onen giza bidea argituz gaiñ, ia konturatuten ba gara, Jaungoikoak bereztutako gaimundu onetara zertarako bialtzen gaitun.

### 5.3. Jendekuntzazko garaiak.

Munduko Giza, bere azturaren oiturazko lanean edestian zear nasaiago bizitzen joateko, nortasunezko Jendekuntzan garaipentzen asi zanetik, ez dau izan bear besterik, gaiak era ezberdiñetan emoten dauskuzan aukerak egokitu baiño, ta eratzen joan giñan tresneriekin, izakizun, al diranak edo ta izan ditekezenak zentzuzko azturaren azter lanean<sup>(9)</sup> egokituta<sup>(10)</sup>, gaur daukagun erreztasunezko egokitasunean ezarrita gaude.

(8) Orubeak = emplazamientos. (9) Azter lanean = investigación empírica. (10) Azturaren azter lanean egokituta = enraizar el recuerdo.

Orregaitik leen, mundu au beren oiñarrizko legean erperatuta dagoela ikusiz, eta onen lege kanpobidetik beste gauzarik egitea eziñezkoa biurtzen jakun lez: asieratik gaur arte, denbora guztiak bardiñak dirala esan bearrean aurkezten gara.

Gaiak daukazan legezko arrazoiaren bidez, gure ekintzarako eskatzen dauskuna, eten bako ekandu edo zentzuzko orekak zaintzea dalako.

Eta Gizaren arloan bigarren: betiko legeak eskatzen dauan lez, danon eskubideak, ekanduaren ordezkako ardura bardiñean zaintzea dala ! zentzuzko oreka eder baten egokituta, belaunik belauin bakez iraun daigun.

Baiña ainbaten esan dodan lez, izan ez ditekeena, gure gizarteko eskubideak zaintzeko gaur bear daben ekanduaren orekazko ordezkariak: elefante bat leiargintza<sup>(1)</sup> baten sartuta, egin leiken triskantzaren antza eukitea da.

Eta ez gara geiegi arritu bear, IVn gizaldian egin zan Nizeako eleiz-kaizar batzarretik ona, daukagun katolikotasun au, asierazko oiñarrietatik norkerizko oldozmenean lapur antolatu zalako, beren eragipenagaz Europa ta Mundu au antolamendu onetan zuzentzeko daukaguzan jaurkintzazko agintaritzak, goitik bera ustelduta egertzen jakuz, bere izatasunezko lapurtza, lapur biurtzen dabelako bere ondorengotik bakanduta agertzen diran lege guztiak.

**Atutxa'tar Paul**

*Zornotza'n 2013an Urtarrillaren 15ean*



(1)Leiargintza=cristaleria.

# E u s k a l a s t e a

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2013-11-25.- Pablo ATUTXA

2013-11-26.- Angel LARREA

2013-11-27.- Klaudio BARROETA

2013-11-28.- Angel LARREA

2013-11-29.- Pablo ATUTXA



**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2<sup>a</sup> esk.

**ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK**

Ordua: **Zazpiretan**

**EUSKERAZALEAK**

## IPUIN SARIKETA

### Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira: 

1. <sup>a</sup>	300 euro	4. <sup>a</sup>	120 euro
2. <sup>a</sup>	240 euro	5. <sup>a</sup>	60 euro
3. <sup>a</sup>	180 euro		
- Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

**EUSKERAZALEAK**

## ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

**ZABALDU DAGIZUN "ZER".** Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

Gure elizdorreko  
ezkila zaarrak  
Badauzka edaturik  
berrien bakarrak  
Dilin, dalan, dalan, din, dan  
Din-dan boieran, din, dan (Bis)

Ene aitatxi zuten  
noizbat bataiatu,  
Ezkil zaarra baitzen  
alegrantziatu.  
Dilin, dalan...

Sortuz geroz gizonak  
zor du maitatzea,  
Bai kartsuki jo zuen  
aren ezkontzea.  
Dilin, dalan...

Bainan ezkil zaarra  
zertako brandaka?

Etsai gaiztoa dator,  
lot, gizon, arnaka.  
Dilin, dalan...

Arrats or lazgarria,  
ezkil etsitua,  
Aitatxi gorputz da-ta  
gerla da galdua.  
Dilin, dalan...

Bainan ezkila mintzo,  
xo, dezagun adi,  
aur ttipi bat sortu da,  
azkar bizi bedi  
Dilin, dalan...

Kanta beza ezkilak  
menderen mendetan!  
Kanta beza bizia  
Euskal Errietan!  
Dilin, dalan...



**Bizkaiko zubia Portugaleten**